

EDITORIAL

Bide markatuak

ATERPE, mapa eta gidaliburuaren aurka Messnerri gogotsu hitzegiten entzuteak pentsakor utzi ninduen. «Ia guztiz ari da galtzen —zioen— abentura zentzua, zeina gure mendi zaletasunaren osagarri indertsuenetari-koa bait da. Ezin dugu dena ariketa hutsetara murriztu.» Esaldi hau «white wilderness»arekin lerratzen da logikoki eta areago maltzurki laburpentzen zutenekin: «Hori orain dio, berak jadanik denak egin dituenean». Dena dela gure artean aplikapen zuzena du, gaur egun erritmo azkarrez biderkatzen ari den zerbaitetan: gure mendietako seinaleen ugalketa.

Randonée handiak, zeharkaldiak, muga administratiboei birak, ibilaldi erregulatuak edo klubon ibilaldi kolekti-bo arruntak, bidezidorrak betetzen ari dira orientatzeko seinalez. Eta ez da bakarrik dena egina ematea gure erabaki-tzeko ahalmena deuseztuz, baizik eta hauen ugaltze gehiegiak mendizalea nahastu egin dezaketela, azkenean ez duelarik jakingo hainbeste seinaleen esangura.

Markatzeak ondorio mesedegarriak izan ditzake, jakina: Oinarriz, zabaldu egiten ditu aukerak. Ahalmen, pres-tapen, bitarteko edo astirik ez duen jendeari, mendian gauza gehiago egiteko aukera ematen dio. Eta gerta daiteke baita ere, seinaleztapen egokiak giza bizitzak salbatzeko baliozkoa, Hörnlik Cervinoko bide arrunta markatzearen ka-suan bezala.

Baina, eta auziaren gakoa hemen dago, honetan datza hautapena: mendia publiko handiari zabaltzean edo mendia ahal denik eta egoera naturalenean mantentzean, epe luzera alternatiba izaten jarrai dezan, geure eta ondo-rengo gizaldientzat. Seinaleak elementu bat gehiago dira lehia horretan, nahiz eta, pintura marka kasuan bezala es-tetikoki nabariak izan arren, ez diren kalte ekologiko atzeraezinak, harrobiak, baso mozteak edo pistak bezala.

Seinaleak, pintura markak baino hobeak dira; klub batek ere ez lituzke pintatu behar ibilaldi erregulatuak; be-harrezko ez diren seinaleztapenak ekidin beharko lirateke; Federakundeak araudi bat proposatu beharko luke eta laguntza teknikoa eman... Azken batez soluzioa besteen esperientzien erreferentzia iragankorren ordez mapak eta iparrerrataz erabiltzeko eta mendian ibiltzeko gaitasun eta heziketatik dator maila orokorrean, eta maila indibidue-lean irtenaldi bakoitza ongien probetxatzea bilatzeko inizatiba pertsonala mantentzetik. Horretarako, dauden erraz-tasun teknikoen eraginetik urrundu egin behar da. Euren jarraitzea ez dadila bihur nahitaezkoa. Mendien erakargarri-tasuna ez da guztiz desagertzen gailurreraino pista egin dutelako. Alternatibak bila daitezke. Teruelgo Peñarroyan bizi izan dugu berriki esperientzia hori. Medebaldeko isurialde eder osotik igoteko aukera geratzen da Valdelinaresko eski zentruraino Hegoaldetik igoten duen karretera ahastuz, zeina behin ere ez bait da ikusten.

Camino marcados

ME dejó pensativo oír hablar a Messner, con cierto entusiasmo, en contra de los refugios, los mapas y las guías. «Se está perdiendo —decía— casi por completo el sentido de la aven-tura, que es uno de los más fuertes componentes de nuestra afición al monte. No podemos reducirlo todo al mero ejercicio físico». El comentario encaja lógicamente dentro de la línea del «white wilderness» y más, como simplificaban los maliciosos, «ahora que él ya los ha hecho todos». Sin embargo, tiene una inmediata aplicación a nivel local en algo que se está multiplicando hoy en día a un ritmo acelerado: la proliferación de señales en nuestros montes.

Grandes randonnées, travesías, vueltas a los límites administrativos, marchas reguladas o sim-ples excursiones colectivas de clubs, están sembrando los senderos de señales orientativas. Y ya no es sólo que lo den todo hecho, privándonos de nuestra capacidad de decidir, sino que, incluso, su exceso puede confundir al montañero que acabará no sabiendo el significado que tiene tanta señal.

Evidentemente, el marcar puede tener efectos beneficiosos: básicamente, abre oportunidades. Proporciona a gente que no tiene facultades, preparación, medios o tiempo, la oportunidad de hacer más cosas en la montaña. E incluso, puede suceder que una adecuada señalización sirva para salvar vidas humanas, como sería el caso de marcar la vía normal del Cervino, por Hörnli.

Pero, y es el punto clave del debate, la disyuntiva es esa apertura de la montaña al gran público o la conservación de la montaña en el estado más natural posible, para que pueda seguir siendo una alternativa a largo plazo, para la nuestra y las siguientes generaciones. Las señales son un elemento más en esa confrontación aunque, siendo estéticamente significativas, como es el caso de las marcas de pintura, no supongan un daño ecológico grave e irreversible como pueden ser las canteras, las talas forestales o las pistas.

Las señales son mejor que la pintura; ningún club debería pintar marchas reguladas; habría que evitar las señalizaciones innecesarias; la Federación debería proponer una normativa y prestar una asistencia técnica... En último término la solución va a nivel general por la educación y capacitación para andar por la montaña y para utilizar mapas y brújula en vez de efímeras referencias de experien-cias ajenas, y a nivel individual pasa por el mantenimiento de la iniciativa personal para buscar siem-pre el aprovechamiento óptimo en cada salida. Para ello se trata de no dejarse influir por las facilita-des técnicas existentes. Que no se conviertan en obligatorias de obedecer. El atractivo de los montes no desaparece totalmente porque hayan construido una pista hasta la cumbre. Se pueden buscar al-ternativas. Acabamos de vivir esa experiencia en el Peñarroya, de Teruel. Queda la posibilidad de su-bir por toda la hermosa vertiente Oeste de la montaña olvidándose de la carretera —que no se ve en ningún momento— que sube por la cara Sur hasta la estación de esquí de Valdelinares.